



CITY PARKING

2. Merkatuaren Segmentazioa:

- **Zein da zure bezeroa?**
- **Zein dira bezero horien ezaugarriak?**

Merkatuaren segmentazioari dagokionez, City parking aplikazioa 18 urtetik gorako eta karneta duten pertsonentzat dago zuzenduta. Horrekin batera, kalean aparkatu nahi izan behar dute.

Beraz, batez ere aparkatzeko arazoak dauden tokietan mugitzen direnak izango dira gure erabiltzaileak; hala nola, hiriak. Gainera, toki bila denbora galdu ezin dutenak izango dira bezero nagusiak: langileak, gurasoak, ikasleak...

Hori dela eta, merkatu mota merkatu-nitxoa izango da. Hau da, bezeroak zehatzak eta berezituak dira, asetu nahi duten beharra oso konkretua baita: kalean aparkatu nahi izatea modu azkar eta sinplean.